

Intertestualitatea abiaburu: Haranburu Materrearen harrobian

**Intertextualidad en ejercicio: Haranburu, deudor de
Materre**

**Point de départ de l'intertextualité: Haranburu
débiteur de Materre**

**Starting from intertextuality: Haranburu's debt to
Materre**

SALABERRI MUÑOIA, Patxi
Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU/UPV)

Noiz jaso: 2014-02-14
Noiz onartua: 2014-04-28

Euskera. 2013, 58, 2. 631-686. Bilbo
ISSN 0210-1564

Originaltasun-eskalarik finkatzeko xede orotatik at bada ere, honako lan honek intertestualitatearen problematikari heltzeko talaia egokitzat iritzi dio Joanes Haranburuk 1635ean argitaratu zuen *Debocino escuarra, miraila eta oracinetegua* liburuari. Izan ere, lar gibelatua da gure literatura klasikoan idazlanen arteko lotura eta filiazio-lerroak azaleratzeko jarduera. Bestelako iturburu azterketa saihestu gabe, bereziki Haranburuk Estebe Materren harrobiarekin dituen zorretan sakontzea eta haietako funtsezkoenak nabarmentzea izan da oraingo artikulu honen ahalegin nagusia.

Hitz-gakoak: Euskal Literatura, XVII. mendea, Intertestualitatea, Haranburu.

Este artículo, alejado de toda pretensión de fijar escalas de originalidad, considera que el libro que publicó Joanes Haranburu en 1635 *Debocino escuarra, miraila eta oracinetegua*, puede ser una atalaya adecuada desde donde afrontar la problemática de la intertextualidad. En nuestra literatura clásica se ha demorado demasiado el trabajo de poner en relación los trabajos que se publicaron en aquella época y las filiaciones de sus autores. Sin descartar otro tipo de fuentes, la pretensión de este artículo ha sido investigar lo que debe Haranburu a la obra de Estebe Mater y destacar los aspectos mas importantes de esa influencia.

Palabras clave: Literatura Vasca, siglo XVII, Intertextualidad, Haranburu.

Cet article, loin de prétendre fixer des échelles d'originalité, considère que le livre que publia Joanes Haranburu en 1635, *Debocino escuarra, miraila eta oracinetegua*, peut être la tour de guêt adéquate depuis laquelle ont peut affronter la problématique de l'intertextualité. Dans notre littérature classique on a trop tardé à mettre en relation les travaux publiés à cette époque et les filiations de leurs auteurs. Sans écarter d'autres sources, la préention de cet article a été d'étudier ce que doit Haranburu à l'oeuvre d'Estebe Mater et de souligner les aspects les plus importants de cette influence.

Mots-clés: Littérature Basque, XVII^e siècle, Intertextualité, Haranburu.

Without any pretensions to establishing degrees of originality, the book *Debocino escuarra, miraila eta oracinetegua* published by Joanes Haranburu in 1635 could be an appropriate vantage-point from which to consider the issue of intertextuality. We have been excessively slow to elucidate the links and derivations between works of our classical literature. Without rejecting the possibility of other sources the primary effort in the present article has been that of clarifying what Haranburu owes to the work of Esteban Materre and highlighting the most important features of his debt.

Keywords: Basque literature, 17th century, intertextuality, Haranburu.

1.

Euskal literatura zaharraren baratzari, sarri edo bakanka, ikustalditxoren bat egin ohi dionak ondo asko dakien bezala, gurean ez da originaltasunarena gehiegi balioetsi izan den ezaugarri suertatu. Arrazoiak, ageriko, eta bereziki sinesmen erlijiosoen eraginez landutakoen sailean, han luzaroan ez baitzaio egun ia hil ala bizikotzat hartzen den jabego eta *copyrighten* kezka ekonomiko-erromantiko-nartzizista horren barneratzeari lehentasunik eman.

Ez gutxitan, gainera, nabari geratzen da sail hartako ortuzain gehienek erein izan dutela, zeinek bere alorrean, inguruko auzoak landutakoetatik jasotako hazirik, eta baita, behar izan dutenetan, aurrekoen zein albokoan lastorik erabili ere. Eta baratze-bisitari gazteagoek okerrago deritzotena, gehienetan, esker gaiztoko laborarien antzera, isil-isilik eta estimatze-frogarik agertu gabe urrundu izan zaizkigu gure baratzezainok.

Kasu harrigarrien artean, Axular katoliko-kontrarreformistarena. Aspaldi argitaratua da nola urdazubiarrak, Erromako debekuei muzin eginik, «erabili» zuen (irakurri eta mailegu zenbaitetarako erabili, alegia) Leizarraga kalbindarraren *Testamendu Berria* erdeinatua eta debekatua (ikus Salaberri 2000). Eta, esan bezala, erabilitako hazi-lastoen jatorriaz ezer adierazi gabe.

Haren eskergabetasunaren aringarri gisara, aitortu behar da disidentzia ideologikoarekiko konfraternizaziorik erakutsi nahi ez izatea izan zitekeela ebaska jokatzearen arrazoi nagusietako bat, bestela jokatzearen ondorioz, bai orduan eta bai orain, ortua eta ondasun materialak baino bizitzarako preziatuago den beste zerbait galtzeko arrisku erreala etor baitzekiekeen idazleei segidan.

Baina Axular handiak Materre fraide predikari apalaren baratzetik ere jaso zuen aitortu eta eskertu gabeko alerik (Salaberri 2000). Eta horretan ez dirudi bere burua «edekia» ikusteko arrisku larriak bulkatu zionik jokabide ezkutatzaile hartarantz.

Izan ere, XIX. mendera bitartean aski ohikoa, onartua eta hobendun-markarik uzten ez zuena gertatu da nonahi idazleen artean isilkako jarrera mailegatzaille hori; are onetsiago –eta gurean ugari ziren idazle erlijiosoetan

barkatuago eta «benedikatuago»–, asmo garai eta espiritualak xede, inorenetik mailegatutakoek autoreek burutu behar zituzten obra kateketiko-pastoralak hobetzeko helburua zutenetan.

Euskal Literatur Sistemaren barneko mailegatze-jolasen eta testu-zorren auziaz ari gara bereziki, jakina, ez kanpokoez, nahiz eta, Leizarragak berak ageriago (itzulpenak burutzea baitzen haren lana) eta Axularrek ezkutuago erakutsi bezala, gure hizkuntz mugez haratagoko literaturekiko zor-maila ere mespretxagarria ez den¹.

Ildo horretan, eta dagoeneko Materre ere aipatua dugunez, ezin ahantz daiteke lehen euskal idazle kontrarreformistaren *Doctrina Christiana* ere korrsario-patentea bekokian jaio zela mundura. Aurreko eta ondoko dotrina guztiak bezalatsu, erantsi beharko litzateke jarraian, ez baita ezagutzen obra kateketikoak baino originaltasun gutxiagoko lan «originalik»². Izan ere, ideologia (erlijio) baten hedapena eta proselitismoa bilatzen dituzten testuek definizioz behar dute trinko kodetuak eta itxiak izan, maiz asko jatorrizko iturria (bat eta bakarra, gehienetan) tonu ezberdinetako uren artean ezabaturik utzi nahi izaten badute ere³. Berezko daramatzate, hortaz, desbideraketarik ahalbidetuko ez duen testu kanoniko bakar batean oinarritzeko premia, eta hartatik, funtsezkoena bederen, «mailegatze»koa.

Agidanez, bada, euskal testu-mota horien lehendabiziko erredakzioak beste hizkuntzetan moldatutako bertsioetatik abiatuz burutu izan dira beti,

¹ Axularren liburuak gaztelaniazko literaturarekin izandako loturez eta konkordantziez, ikus Salaberri 2001.

² Katiximen «originaltasuna»z ari garelarik, gogoratu beharrekoa da Trentoko kontzilioaren ondoren Pio V.a elizburuaren aginduz kaleratu zen Erromako Katiximak berak ere (1566) beste katixima nabarmen bat izan zuela iturri: Bartolomé de Carranza gotzainaren *Comentarios al Catecismo Christiano* (1558) izenekoa (ikus García Suarez 1970 eta Rodríguez 2009).

³ Pio V.aren katixima izan zen Eliza Erromatarraren sinesmenaren azalpen bateratu ofiziala eta, teorikoki bederen, gainerako *doctrina* katolikoen iturburua. Halere, fortuna desberdineko *sumarioak* eta *doctrina*-garapenak prestatu ziren elizbarruti gehienetan. Pentsatzekoa da, beraz, haietakoren bat izango zela Materrearen «harrobia». Tolosako Raymond Colomiez inprimatzaileak kaleratu zuen *Sommaire de la Doctrine Chrestienne* lana ([1616] 1621), esaterako, ez dirudi haren *declarinotik* (bigarren parte osatzen duen ataletik, hain zuzen) urruti dagoenik.

ez hutsetik hasita. Eta lehenengo zorrak ere haiekiko izan ohi dira, eskuarki. Gero, bigarren urrats gisara etorri izan dira etxe barneko maileguak eta haiei dagozkien zorrak.

Maizki, kanpoko idazlanetatik eginiko lehen «testu-garraiatazea», arrazoi bategatik (egilearen ospea, obraren garrantzia...) edo bestegatik (merkatua irabazi beharra, etab.), aski aitortua suertatu izan da euskal literaturaren historian. Astete-Ripaldarenak⁴ ageriko oinarri hartu dituzten *dotrimetatik* hasita (Kapanaga, etab.), adibidez, ez da ez dakienik Richelieu-k taxututako katixima euskaratu zuela Pouvreauk (*Guiristinoaren Dotrina*, Paris, 1656) edota Ubillos-ek Fleury-ren *Catéchisme Historique* gureratu zuela (*Christau doctriñ berri-ecarlea*, Tolosa, 1785), etab. Eta aise ugarituko litzaizkiguke etsenplu aitortuak darabilgun kronologiatik gehiago urruntzen hasiko bagina.

Guztiarekin ere, bigarren urratsa da oraindik ilun dagoena. Hau da, jadanik etxekotzat ditugun obren arteko antz eta paralelismoen identifikazioa, erroldatzea eta, *last but not least*, haien originaltasun-mailaren kalibratzea eskatzen dituen.

Eta aitzakia horrekin ekin diogu Joanes Haranbururen obra konkordantzien identifikazio-arlorra ekartzeari, besteak beste, haren «jokamolde garraiatzailea» noraino iritsi zen baloratu ahal izateko, baina, batik bat, horrek guztiak euskal literaturaren sorkuntzaren historian ere argi egin lezakeelako.

Inork ez beza, dena den, intertestualitatearen arakatzeko-lan honetan aiherririk suma Haranbururekiko, ez aldeko eta ez aurkako, ez behintzat erlijiozko idazkiek sorrarazi ohi dituzten asperduretatik haratagokorik. Esan bezala, gure literaturaren originaltasun, lotura eta filiazio-lerroak finkatzeko nahiak bideratu baitu lan hau.

Gainera, honela, eta azken muturreko konklusio gisara balitz ere, beti jakin ahal izango litzateke gure klasiko zaharren batek behintzat irakurle arduratsuren bat edo beste izan duela urteetan barrena eta, garrantzi gehia-

⁴ Zuzenago litzateke, Resines-en tesia aintzat hartuz gero, «Astete» delakoaz bakarrik mintzatzea, eta ez Astete-Ripaldaz. Hark dioenez, «se puede afirmar, en un juego de palabras, que Astete no sólo escribió el 'Astete', sino también el 'Ripalda', y que Ripalda no escribió el 'Ripalda'» (Resines 1997, 248).

gokoa dena, onuraren bat ere atera diola idazteak berez ekarri ohi dituen lan eta penen emaitzari. Eta hori, zeruko loriaren bidean izanik ere, oso da kontsolagarri eta itxaropenezko negarrezko literatur haran honetan.

Hurrengo lerrootan, beraz, saratarraren *Debocino escuarra miraila eta oracinotegua* (Bordele, 1635) izeneko liburua⁵ izango dugu mintzagai nagusi⁶.

2.

Agerian da debozio-liburu bat ehuntzea izan zela Haranbururen xedea eta, frantziskotarra –eta, ondorioz, ordenaren propagandista– zen heinean, baita ere San Frantziskoren Heren Ordenaren Erregela agertzea. Funtsean debozio-liburua, edonola ere.

Argitaratzeko baimena sinatu behar zuen Fraide Probintzialak egoki laburtu zuen haren izaera: «un livre intitulé *petit miroir de devotion*, contenant aussi la Regle du tiers Ordre de nostre Pere S. François» (a2, aurkia). Besterik gabe.

Kanpora begira, ordea, zertxobait osoago zeritzon Haranburuk liburu hartan eskaintzen zuenari: *Debocino escuarra, miraila eta oracinotegua*. Alabaina, azpituluan zehaztu zuenak ez du hain argi azaltzen izenburuan iragarritakoa: *Virginaren debocinoa, marinelena, eta san Francesen heren Ordena, berce anhitz debocinozco othoitcequin [...]*⁷, honen arabera ezin baita egokiro

⁵ Vinsonen ustez (1984 [1891-1898]), honako edizio hauek izan zituen Haranbururen liburuak XVII. mendean barrena (desagertuak, parentesi artean): 1635, [c.1642], [c.1660], c.1690a eta c.1690b (ikus bitez, batik bat, 1898ko *Bibliographie de la Langue Basque. Complement et supplément* delakoaren «Additions et corrections» atalean egindako zuzenketak).

⁶ Gogoan izan bedi ez dela hemen bestelako ediziorik aintzat hartuko. Batetik, esan bezala, Haranburuk 1642. urtearen inguruan argitaratu omen zuenaren alerik ezagutzen ez delako (nahiz eta liburutegi larriren batean, Vinsonen oharren irakurketa gaiztoa medio, ordukotzat azaltzen den oraindik askoz beranduagoko edizioren bat). Eta bestetik, ezagunak diren 1690(?)eko argitalpenen egitura –nonbait 1660(?)koarena bezalaxe–, Harizmendiren hegatsak moldatua delako, eta erroitik moldatua hain zuzen, bai kapituluaren eta gaien ordenari zegokionez eta bai edukiar berari ere. Haietan oinarriturik, bada, nekez jakin liteke zer den saratar batena eta zer bestearena.

⁷ Edukia laburtzen hastean, halere, bestelako hitzik erabiltzen du «obraren iabeac»: «[...] hargatic nic ere *dotrina* hau çure beguien aitcinera athera dut [...]» (e2, aurkia; gurea da letra etzana).

antzean non bukatzen den iragarritako «deboçinoa», zeri deitzen zaion «mirailla»⁸ edota norainokoa den «oracinotegua»ren edukiera⁹.

Printzipioz, baina, badirudi San Frantziskoren Ordenaren Erregelari de-dikatutako atalaz gainera, honako hiru azpimultzoak bereizi nahi izan zitue-la autoreak: Ama Birjinaren debozioarena, marinelentzat espresuki presta-tutako debozioarena eta bestelako otoitzez osatutakoa.

Nolanahi ere, liburuia ikuskatzean estilo bereko multzo desberdinak atze-maten direla esan liteke, eta ez beti egungo zein garai hartako logika eta oreka-formulekin erraz esplika daitezkeenak.

Liburuaren «parteak», esaterako, ez datoz beti bat Haranburuk xedatu-tako multzokatzearekin. Horregatik –eta agian beste esanahi bat eman nahi izan bazion ere–, ez zitzaion Harizmendiri arrazoirik falta «hirur partetara, la- [sic]¹⁰/ na duçu partitu» idatzi ondoren, honako bukaera eman zionean adiskidearen lana laudatzeko laukoari: «Hirurcatze hunez,/ *mysterioz handi-tu*» ([e3], ifrentzua; gurea da letra etzana). Zinez handitu baitzuen Haran-buruk –barka bekigu lizentziaren maltzurkeriatxo– taxutze horren kohe-rentziaren misterioa¹¹.

Ikus ditzagun arreta gehiagorekin liburuari emandako taxuketa eta edukia.

Hasi, lehen partea dirudien «Eguiazco guiristinoen egunorozco exerci-cioa» delakoarekin hasten da saratarraren obra (1-124 orrialdeetan barrena

Geroago helduko diogu «dotrina» hitza erabiltzeko arrazoiaren arazoari.

⁸ Euskarazko *mirail* (*ispilu*) izena, frantsesezko *miroir* delakoa bezala, Erdi Arotik aurrera tradizio kristauan latinezko *speculum* hitzari eman zitzaion adierarekin emana da Haranbururen liburuaren izenburuan, hots, izaera didaktikoa eta asetikomorala zuten obrak izendatzeko izentzat.

⁹ Liburuaren onespena dagien Saubat Ihartze gotzainak, adibidez, «oracino manual» hustzat de-finitzen du Haranbururen lana; birritan, gainera.

¹⁰ Modu ez beti erregularrean lerrokatuak izan ziren arren, 6/7a ereduko zortzi lauko osatzen dira Harizmendik liburu honen egilea laudatzeko prestatu zituen bertsoak. Bost bat aldiz gertatzen den konposatze-akats horretaz ohartaraztera dator, bada, [sic] horren tartekatzea.

¹¹ Harizmendi bera izan zen handik urte batzuetara Haranbururen liburuia zeharo moldatu zuena, besteak beste, idazlanak ments zuen koherentzia (teo)logikoari ere nonbait «arrimu hobea» eman behar zitzaiola uste zuelako.

garatua). Halere, orri-buruetan izenburu nagusia («*Egunerozco exercicioa*») mantentzen duten orrialdeak 1-26 bitartekoak baino ez dira, eta, eduki gisa, autoreak nolabaiteko *nahas-mixa* eskaintzen du bertan. Hau da, gauza berdinak bailiran (eta ortotipografia berdina erabiliz), zeinatzearen esanahia azaltzarekin hasi eta otoitz-formuletara igarotzen da jarraian (aitagurea, agurmaria eta kredoa), ondoren Ama Birjinari otoitza eta aginduen atala (Jainkoarenak eta Elizarenak) datorrelarik.

Ordo doctrinae bitxi horren harikoak dira hurrengoak ere (inolako kategorizazio tipografikorik gabekoak, gainera): «Cofessio generala»ri eskainitako orrialde eta erdia, ostia «errecibitcean» esan ohi den formula laburra eta «meça»ri dagozkion hainbat otoitz («Meça hastean», «Sacramendu saindua alchatcean», «Calitça alchatcean»). Segidan, eta taxuzko gradazio doktrinalik gabe, egunean zehar egin beharreko otoitzak¹² eta ohiko irakasgaiak¹³.

Bat-batean, eta irakurlearen harridurarako, 27-36 orrialde-buruetako tituluak gai berriak lantzeari ekingo zaiola adierazten du, «*Vertuteac eta Vicioac*» hain zuzen ere. Azpiatal hori «Bekhatuez» izeneko argitzapen moduko batekin hasten da eta beste hainbat gai landuz jarraitzen du¹⁴.

Nabarmendu beharrik ez dago: ondoko azpiataltxoak ere tonika eta ortotipografia berdinarekin mantentzen dira, nahiz tematikoki bederen aurrekoetatik desberdinak izan, «arrosarioa»ren inguruko misterioez baitihardute. Aitortu behar da, halere, orri-buruetako izenburuak argi uzten duela

¹² «Goiceco othoitça» eta «Arraxeco»a, «Etcitean eta iaiquitcean contricinoa», «Lanari lotcean othoitça», «Lana uztean othoitça» eta «Orenac deraunsanean».

¹³ «Hirur vertute Theologalac», «Laur vertute cardinalac», «Gorputceco borz sentimenduac», «Eliçaco çazpi Sacramenduac», «Espiritu sainduaren çazpi dohainac», «Espiritu sainduaren hama bi fruituac», «Çazpi bekhatu mortal buruçaguiac» eta «Hauquen contraco çazpi verthuteac».

¹⁴ Honatx: «Gorputceco çazpi obra misericordiazcoac», «Arimaren çazpi obra misericordiazcoac», «Corci dohaxutasunac», «Espiritu sainduaren contraco sei bekhatuac», «Penitentiaren cofessioco hirur pontuac», «Perfect içaiteco hirur conseilluac», «Iaincoaren aiticinean mendecu eske auden laur bekhatuac», «Berçeren bekhatuan partale eguiten garen bederatci manerac», «Arimaren hirur exaiac», «Guïçonaren laur azquen finac», eta amaiera gisara edo, «Hirur gauca generalqui iaquiteco ditu guiristinoac» izeneko irakaspena, printzipioz guztiaren aurrean hobeto, ustez, zego-keena.

«*Virginaren debocinoa*» dela 37-124 bitarteko orrialdeek jorratzen duten edukia.

Arrosarioaren atalari bukaera emateko, «Frances de Sales»en «khoraco arrosarioa» esateko «manera» azaltzen da, aurretik «Gaztei abisua» delakoa eskaintzen delarik.

Baina berriro harrigarritasunari lekua utziz, eta tipografikoki ere beste parte baten hasiera lirudikeen arren¹⁵, «Iesu Christo Iaunaren eta hunen dignearen vicitcearen eta heriotcearen mysterioen sumarioa [...]» delakoa «*Virginaren debocinoa*»ren atalean mantentzen dela adierazten dute orriburuetakozko izenburuek. Arrosarioa bera funtsezko lokarri.

Hurrengo orrialdeetan Ama Birjinaren debozioari dagozkion gaiak aurki daitezke¹⁶.

«Bigarren partea» izenarekin datorren atala inolako sarrera esplikatzaile-rik gabe hasi eta 125-413 orrialdeetan zehar garatzen da.

Atal mardulena izanik (ia 300 orrialde orotara), *saski* erraldoi baten formatua dauka oro har, mota guztietakoak eta ondozkatu gabe agertzen baitira bere barruan otoitzak: igandekoa, astelehenekoa, asteartekoa..., done Martiarena, konfesatu aurrekoa, ondokoa, defuntuena, kontsolatzekoa,

¹⁵ Egia esan, koherentzia grafikoa ere ez da liburuak duen ezaugarriarik aipagarriena. Esate baterako, parte bakoitzaren hasierako hornidurak eta karaktere tipografikoak ez datoz guztietan bat (ikus «bigarren partea»ren eta «hirugarren partea»ren hasierakoak, adibidez), ez eta parte bakoitzaren ixten duen arrosa gisako irudiak ere (lehen partearen amaierak ez du horrelakorik; bigarrenak eta hirugarrenak, berriz, bai). Koherentzia falta horri guztiari erantsi behar zaizkio 46. orrialdean inolako partiziorik adierazten ez duen amaierako arrosa gisako bera eta, hori gutxi bailitzan, hurrengo orrialdean, parte berri baten hasierakoak izan zitekeen hornidura-lerroa (zortzi lorez osatua) eta karaktere tipografiko larriak. Tipografia eta irudi huts horien arabera, hasierako asmoen artean lau atalez osatutako obra bat irudikatu zela emango luke. Hirutara mugatu zen, edonola ere.

¹⁶ Hona garrantzizkoenak: «Virgina ganaco gomendioac», haren «çazpi bezcarioac [sic]», otoitzak, «Iaincoaren amaren salutancia», «Santa Anaren aiticinean perdunançaç» irabazteko latinezko otoitzak, «Sancta Methilderi [sic] Andre Virginac hilceco orenecotz irakhaxi hirur othoitçaç», «Fabore galdetceco othoitça», «Predicua hastean othoitça», «Andre virginari marinelaç eguiteco othoitça», latinezko «Virginaren hymno debota», «Leçu betçuetan [...] eguiten den arrosarioco prosasinoac» eta «letharinac», latinez bi hauek ere, eta beste hiruzpalau otoitz, han-hemen tartekatuturik, «Andre Virginari».

trinitate sailduarena... eta baita, nola ez, «noiz nahi eguiteco» otoitz pare bat ere.

Lehen partean ez bezala, bigarren honetan otoitzen izenburuak berak dira dagozkien orri-buruetara igotzen direnak. Salbuespen interesgarrienen artean amaiera aldeko otoitz-multzoak leudeke, batik bat, «*Marinelen debocinoa*» (388-413), non, besteren artean, ezin falta baitaiteke «San Francesi eta santa Clarari othoitça» edo «Tormenta alchatcean othoitça» bezalako errezo luzerik.

Multzo honen amaierako «Arimaren ordenua» izenekoa, bestalde, *saskia*-ren itxiera orokorra izan zitekeen, eta ez «*Marinelen debocinoa*» azpiatalarena, ez baitu, izatez, itsasoaren edo marinelen erreferentzia ñimiñoena ere egiten.

«Hirugarren partea» «Heren ordenaco debocinoa»-ri dago eskainia (414-502 or.), eta, agidanez, frantziskotarren etxearen *marka* zabaltzea eta jendea –barka bekigu lizentzia– sareratzea zuen xede.

Multzokatze-mota eta koherentzia-lerro hauen zehaztapenaren interesa, azal dezagun misterioaren lehen hari-muturra, apeta hutsa gabe, honako artikulu honetan erakutsiko denarekin hertsiki uztartuta dago. Ondoko ataletan gakoa.

3.

Liburuaren onespren-gutunetan antzeman daitekeenez, argitaratu baino askoz lehenago bukatu zuen Haranburuk liburua. Hori adierazten du, bederen, «Gure provincian Tarbeco Iaun Ipizpicu Ordinarioaren Approbacinoa» delakoak daraman datak. Izatez, Saubat [d'] Iharce gotzainak 1634ko martxoaren «lehenbico egunean» sinatu zuen gutuna, onspenetako lehena¹⁷.

¹⁷ Liburua enkargatu ziona izanik, Ihartze gotzainari eskaini zion Haranburuk liburua, gure literaturan inoiz egin diren laudoriorik hanpatuenekin gainera: «nola baitçara eliçaco Pilarea, Iaincoaren mahastiçaina, Guiristinoen Capitaina, conciençien Iugea, arimen Midicua, inoranten beguia, ixuen Guida eta ceruco Arçain arthaxua» (azkena, «zeruko»-rik gabe, Jainkoa laudatzeko ere erabilia [193 or.]). Familia bereko eta izen berdinekoak izan arren, Salbat Ihartze hau ez da 1596an Axular apaiztu zuena, haren iloba baizik. Biak euskaldun baxenabartarrak (osaba Basti-

Areago: liburuaren hasieran paratutako egutegi aurreko urteen taulari erreparatzen bazaio, 1633an burutu eta akaso urte hartan kaleratzea espero zuela susma liteke, ohikoa baitzen argitaratu asmo zuten urtearen hurrengo urteari zegozkion jaien taulekin hastea egutegi gisakoa¹⁸.

Haranbururen urteen taula hori, erraz egiazta daitekeenez, hurrengo hogeitazko bakoitzari zegozkion «Igandeco letra» eta jai mugikorrek¹⁹ (Hauste[rra], Bazko[a], «Iondone Salvatore» [Igokunde eguna], «Mendecoste» eta «Besta berri»), 1634. urtean hasten da eta 1653an bukatzen.

Ohiturak (orduko *merkatutekniak*, alegia) eta arrazoiak diotenagatik, bada, beranduenez urte haren hasieran espero zuen saratarrak liburua merkaturatzea; inolaz ere ez 1635ean.

Alabaina, aurreikusita ez zeuden epetan luzatu zen onespeneen jarioa. Horrela, eta harrigarriro, «Tarbeco Iaun *Ipizpicuaren Anaia* Bicario Generalaren»²⁰ sinadura abuztuaren 26ra arte ez zen iritsi, anaiarena baino sei hilabete beranduago. Horren arrazoietakoa bat Haranbururen Probintziala zen Fr. Bonal-en sinaduraren atzerapenean bila liteke ziurrenik (ekainaren 28an luzatu zuen agiria), hurrean arriskutsua izan baitzitekeen «ordinarioen» baimenak²¹ obra argitaratzeko giltza hierarkikoa zeukan Probintzialarena baino lehenago ematea.

dakoa eta iloba Behauzekoa), bi-biak izan ziren Aturbe/Tarbes-eko gotzainak, lehena 1577tik 1602ra bitartean, eta iloba 1602tik 1648ra arte (ikus Xarriton 1999, 101).

¹⁸ Urrunegi ez joatearren, konpara bedi, esaterako, Leizarragaren proposamenarekin: 1571ko azken hiruhilekoan argitaratutako *Kalendrerak* 1572ko taularekin ekiten dio «Urteen kontua» izeneko atalari (ikus Salaberri 2009).

¹⁹ Liburuak ez dakar bigarren seihileko jairik, ez behintzat kronologia katolikoan beste jaiak bezain garrantzizkotzat hartzen ez den abendualdiko lehen igande higikorri dagokionik. Bestalde, aurrerago datorren egutegiari zegozkiokkeen azken orrialdeetan, «aboztua»ren hasiera azaldu bezain azkar amaitzen da egutegia. Akats nabarmena den arren, ezin jakin daiteke gabezia hori edizio guztiaren akatsa ote den, inprentan ale honetara –edo ale bakan batzuetara– bakarrik isuria edo denboraren poderioz ale honi gertatutako mensa.

²⁰ Gurea den letra etzanak leku berean bizi ziren anaia bien arteko irakurketa-desfase handia azpimarratzea besterik ez du bilatzen.

²¹ Azken atzerapen honen arrazoiak aieru huts izaten segitu beharko dute: «Francesen Heren Ordenako Erregelak» eta debozioa «behar bezala» eman ahal izateko kontrol-premia zorrotzak

Bestelakoak ziren, ordea, Haranbururen hasierako asmoak eta aurreikusitako epeak.

Halere, data horiek gehiago (urtebetez, gutxienik) murrizten dute Haranburuk berea idazteko kontsulta zitzakeen liburuen argitaratze-epea. Zehatzago esanez, nonbait 1632.aren aurretik kaleratutakoak baino ez zitezkeen saratarrak erabili ahal izan zituen liburuen multzoan sar.

4.

Artean kontrarreforma trentoarraren argitalpen-mekanismoen ekoizpena lar ugaldtu gabe, ezin izan zezakeen Haranburuk hurrean erreferentzia baliagarri askorik mendearen bigarren hamarkadaren amaiera aldean enkargatu bide zitzaion euskarazko liburua taxutzeari ekiteko.

Urritasun horrengatik, hain zuzen, ziren (ziruditen, bederen) laster eta erraz asko deskubritzekoak Haranbururen liburuak hurbileko inorenarekin izan zitzakeen antzak eta konkordantziak, eta are lasterrago eta errazago gainera, ustezko intertestualitatearen fruituak («maileguak», azken batean) euskaraz argitaratutako liburu bakanetatik eginak baziren.

Leizarraga eta Etxepare ageriko arrazoiengatik baztertuak, Materre eta Etxeberri Ziburukoaren idazlanak²² baino ez zitzaizkion azaltzen kontsultatzeko moduan saratarrari; bigarrenarenak, gainera, Haranbururi gehiegi interesatzen ez zitzaion *kopla*-moldean burutuak ziren.

Bestalde, inoren formulak baliatzeko agertzen ziren erreferentzien zirkulu gero eta hertsiago hartan, aintzat hartzekoa da Materren obraren bigarren argitalpenak ere hamar urte eskas zeramala hitz lauako dotrina arrunt merkatua «monopolizatzen»²³.

bulkatua? Frantses Tolosako komentu barneko burokrazia? Axolagabekeria?... (ikus, orobat, lan honetako 23. oharra).

²² Argitaratu berriak edo zituen Etxeberri Bordelen bere *Manual devotioñezcoa* (1627) eta *Noelac* (1630? [onespenak urte horretako abuztuan sinatuak dituela baino ez dakigu, tamalez]).

²³ Monopolio atipikoa, edonola ere, 1617an kaleratu zuen edizioa agortuta edota merkatutik erretiratua, Materren 1623koa suertatu baitzen fededun katolikoek bertso-hizkuntzaren artifi-

Epe laburregiak eta geografia estuegia, nonbait, intertestualitate-kontu mendrenik ere gertatuz gero, inguruko elizgizonak eta liburu-erabiltzaileak hartaz ez ohartzeko.

Hain zuzen ere, dakiguntxoaren arabera, badirudi izan zela Haranbururen mailegatze-lanaz ohartu zenik eta baita, antza denez, egindakoa maisetzen ibili zenik ere.

Horretaz (ere) mintzo da, esaterako, Haranbururen adiskidea zen Harizmendi.

Haranburuk, egia, ez zuen bere buruari «obraren iabe» deitzeko eragozpenik ikusi. Irakurleari zuzendutako gutunaren izenburua irakurtzea besterik ez dago: «Iracurcailleari obraren Iabeac» (e2 or., aurkia), dio argi eta inolako estakururik gabe.

Eta, jakina, ohikoa den moduan, nekez egon zitekeen egiletza hura ukatzeko asmorik inoren sarrera-hitzetan, are gutxiago hitzen egilea adiskidea izanik.

Ez da harritzekoa, beraz, Harizmendik eskainitako laudorioan, hala izenburuan («C. Harizmendi apeçac *eguileari*»), nola jarraian datozen bertso-lerroetan, egiletzaren auzia zeharo xahaturik uztea:

Badakhusat clarqui,
 çuc eguin liburuan,
 Mereci ainitçac,
 ditutçula ceruan ([e3], ifrentzua; gurea da letra etzana).

Agerian da, hortaz, Haranbururi egozten zaizkiola lanaren aitatasuna eta meritua.

Baina aldi berean, eta bekaizgoaren aitzakiapen izan arren, Haranbururi egindako kritiken konstantzia ere utzi zuen Harizmendik ondoko lau-koan:

ziorik gabe idatzirik eta era arruntean erabiltzeko eta ikasteko prestaturik izan zuten liburu bakarra. Ezaguna den bezala, merkatuan eta elizan lehia egin ziezaioketen Etxeberri ziburutarrak argitaratutakoek bestelako asmoak eta erabilerak zituzten aurreikusirik.

Nahiz Imbidiac,
erran deçan cer nahi,
Mereci hec berdin,
eztaquizquetçu bahi.

Laudorioak laudorio, ezin uka omen zekizkiokeen egiletza-merezi-menduez mintzatzean erantsitako «imbidiac, erran deçan cer nahi» delakoak merezimenduak zalantzan jarri zirela adieraziko luke beste ezeren gainetik. Eta, inferentziak inferentzia²⁴, uste izatekoa da (zergatik, bes-tela, egiletza-merezimenduen garrantzia azpimarratu?) inorenetik –behar ez bezala? zabarkiro? begirunerik gabe?...– jasotako maileguen auzia izan zezaketela mintzagai kritikatzaille bekaizti haiek²⁵. Edota, menturaz, lan hartarako ezdeus samarra ikusten zutela gure «fraide des-calsua»...

Nolanahi ere den, azken buruan argi geratu zen ez bakarrik jokamolde *ex-debekatua* izan zitekeela inoren idazlanetakoak «garraiatze» eta bereganatzearen jolasa, baizik eta inplizituki *onetsia* ere gertatu zela hori egitea, batik bat «iturburu»etan egoki eta finko taxutuak eta burutuak ziren atal eta pasarteen kasuan²⁶. Eta batez ere, bekaizti ustez *hutsa* izan zitekeenaren aringarri gisara, honelako izenburu-ondoko azalpen buru-zuritzaileak erans-ten baziren jarraian, Haranburuk egin zuen bezala: «*Obra debocinozcoetatic traçatua, eguileac berac ere bere baitharic debotqui aberaxtua eta pontualqui eguina*»²⁷.

²⁴ Harizmendik idatzitako horren ildoko baieztapenen kariatara, bereziki azpimarragarria da Arkotxa eta Oihartzabalen «balizko hizkuntza-gatazka»ri buruzko hipotesia (2009).

²⁵ Bidezkoa litzateke pentsatzea kritika (edo «imbidia») haiek elizgizonen esparruan izan zutela habia; eta, agian, kritika (salaketa?) haietan bilatu beharko litzatekeela liburuaren argitaratzea horrenbestearaino atzeratzeko beste arrazoi (nagusi?) bat.

²⁶ Gogora bedi, adibidez, Haranbururen liburuan berrogeita hamar orrialde inguru (lanaren hamarrena, alegia: 61-62, 108-124 eta 469-501 or.) latin hutsez idatzitako formula eta otoiitz kanoniko finkoetz osatuak direla eta, halabeharrez, beste obraren bat izan zutela iturburu.

²⁷ Zer gerta ere, zuhurrago eta esplizituago jokatu zuen Axularrek bere liburuaren mamia zuri-tzean: «*Escritura saindutic, Eliçaco Doctoretaric, eta liburu debocinozcoetatic Axular Saraco errotorac vildua*».

Zalantzarako tarte gehiegirik ez, bada: beste nonbaitetik jasotako materiala, autoreak «aberastua» eta «puntualki» (arduraz? puntuz puntu jasoa? materiari zegokion eran? behar bezala?) egina.

Oroitarazi beharrik ez da urte batzuk lehenago Materrek hitz lauz idatzitako obraren bigarren edizioa zinez ondo planteatua eta burutua zela; eta, ezbairik gabe, horrek berak bilaka zezakeela lan hura, bai hizkuntzaren aldetik eta baita planteamendu erlijioso kontrarreformistatik eta egituraketa formalarenetik begiraturik, maileguak jasotzeko harrobi hurbil, ziur, eman-kor eta aiposen.

Edo modu grafikoago batean adierazita: etxe berria eraikitzerakoan etxe zahar eroriaren harri sendoenak erabiltzea bezain zilegizkoa zitekeen autore kontrarreformistentzat Materrerena bezalako obra gotor batetik material hoberenak hartzeko jokamoldea. Eta bereziki, honako kasu honetan bezala, non hartzaile-mailegatzaila emailearen ordena erlijioso berekoa baitzen; «fraide descalsua»k, Harizmendiren hitzetan, eta jabegorik –material eta intelektualik– gabekoak.

5.

Irakurleak samur asma dezakeenez, Haranbururen intertestualitate-aztarnen azterketan Materreren obra erreferentziazat hartzeko arrazoiak ez dira kronologiara edota protagonista bien herrikidetasun edo anaidikidetasunaren arlora mugatu. Badira, nola ez, metodologikoki ikertzailea hartaratu duten eta nahitaez gogora ekarri behar diren bestelako arrazoiak ere; askoz funtsezkoagoak, ziur asko.

Mintzagai ditugun obrei begiratu bat eman nahi dienak berehala egiazta-tuko duen moduan, formalki zein tematikoki arrunt pareko –eta, beraz, erkagarri– dira saratar eta saratartuaren obrak, hau da, biak zuzentzen zaizkio irakurle-mota berari, biak dira, nola esan, erlijiozko artefaktu kontrarreformistak, eta biak dira, honatx guretzat garrantzitsuena, «dotrina» generoaren esparrukoak. Hain zuzen ere, izen hori bera eman zion Materrek bere idazlanari: *Dotrina christiana*. Eta, gorago ikusi bezala, Haranburuk ere ha-

lakotzat hartu zuen berea «Iracurcailleari» zuzendutako hitzaurrean: «[...] hargatic nic ere *dotrina* hau çure beguien aitcinera athera dut [...]» (e2, aurkia; gurea da letra etzana)²⁸.

Ezin ahantz daiteke, bestalde, Materre izan zela Iparraldeko kontrarreformistetan hegatsa eta papera hartzera eta fede berrizatuaren zimenduak («gure salbamenduco obraren cimendua» dio berak) obra mardul batean idatzirik ematera ausartu zen lehena. Ezagutzen dugun lehena, behinik behin.

Erantsi behar da, hirugarrenik, urtetan izan zela haren obra sendoa –lehen edizioan aurrenik eta bigarrenean gero– inguruko eliza eta katoliko erromatarren eskuliburu bakarra, baita itsas-bidaia luzetan galtzen ziren marinel zailduena ere.

Laugarren arrazoirik eman beharko balitz, ezin aipatu gabe utzi liteke haren *Dotrina christianak* ondokoetan izan zuen eragina, ez bakarrik erlijio-soa edo kateketikoa, eta bai, hein batean, hizkuntz erreferentziazkoa ere. Axularrek «Iracurtçailleari» eskainitako atala, lekuko²⁹.

Gainera, dakigunagatik, ez dirudi garai hartan euskal letrek Haranbururen zutarrri eta harrobi izan zitekeen bestelakorik ezagutzen zutenik. Alegia,

²⁸ Ez da lan honen xedea «dotrina» bien arteko desberdintasunak zehaztea. Alabaina, irakurlea aski ohartua da dagoeneko Materrek oso dotrina egituratua prestatu zuen bitartean, Haranburuk, ordenakidearen gabeziak osatu nahian edo, askoz ere frantziskotarrago eta marianoago bilakatu zuela berea, orojale samarra atera bazitzaion ere liburua azkenean.

²⁹ Materrek ezarri eta erabili grafiaren erreferentzia isurtzen da, esaterako, urdazubiarraren lerro-tatik: «Bada esquiribatceaz denaz beçan batean ere ez naiz eguiteco gabe. Ceren bada hunetan ere differentcia. Batac esquiribatcen du chehero, bertceac gehero. Batac chede, bertceac, gedea. Batac ichilic, bertceac igilic. Batac lachoa, bertceac lajoa. Batac, choil, bertceac, joil. Batac quecho, bertceac quejo. Batac chuchen, bertceac, jugen. Eta hunela bada, bertceric ere cenbait hitz, batac eta bertceac, norc bere herrico edo erresumaco arauaz differentqui esquiribatcen baitituzte» (Axular 1643, 17-18). Izan ere, Materrearen 1623ko edizioak berak aurkezten du grafia zalantzen lehen testigantza, bertan aurkitzen baitira Axularrek hobetsi ez zituen hitz haietako gehienak: «igilic» (32 or.), «gedea» (244 or.), «jugen» ([xxv] or. eta 244 or.), «joil» (166, 175, 302 or.). Zalantzak areagotze aldera, ezin ahantz daiteke Axularrek aintzat hartu ez zuen berrikuntzarik ere proposatu zuela Materrek bigarren ediziorako prestatutako ataletan: «ixilic» (328 or.), «laxoqui» (226), etab.

E. Materren 1617ko lana, handik sei urtera moldatu-egokitua eta aberas-tua kaleratuko zena, eta Ziburuko J. Etxeberriren liburu biak ziren euskal-dunek une haietan eskuzta eta irakur zitzaketan bakarrak.

Ez zuen, bada, Haranburuk jaso bide zuen enkargua betetzeko altxor handirik euskarazkoetan. Eta horrexegatik, hain preseski, zen egiaztatu beharrekoa lan honetan planteatutako hipotesi nagusia, hots, Haranburuk, Etxeberriren poesi, ludikotasun eta mnemoteknia-asmotatik urruti³⁰, probetxugarria iritzi ziola Saran ikasitako «euskaldun berria»ren ekarpen lau-ari³¹. Eta halaxe jokatu zuela bere liburua ontzean.

Gainera, hori guztia gutxi bailitzan, ordurako ezaguna bezain ospetsua³² zen Axularrek berak laudatua zuen Materren dotrina. Honela idatzi zuen Urdazubikoak haren liburua argitaratu ahal izateko luzatutako «aprobaci-noa»: «dela obra bat ttipia delaric handia, hitz gutiz anhitz erraiten duena, ongui esquiribatua, eta meregi duena ibil dadin iendar-tean, eta guztien es-cuetan».

6.

1617ko edizio galduaz gainera, Materren *Dotrina christiana* liburuak beste «impressione» bat izan zuen handik sei urtera, 1623an hain zuzen, Materre frantziskotarra La Réoleko komentutik Okzitaniako Tolosakora igorri zuten hartan³³.

³⁰ Ezin ahaztu, halere, Etxeberriren *Manual devotioezcoa* izenburuari «zor» diola Haranburuk bere obrari jarritako tituluaren lehen atala: *Debocino eskuarra*.

³¹ Formalki guztiz maila apalekoa izan arren, berriagoak diren eta larriagoak diruditen beste au-tore askorenak baino hobeto zahartu da Materren obra eta, are, plazer handiagoz ere irakurtzen da oraindik haren hizkuntza garbi-aratza eta erretorikatik –ez beti– alde egina. Ez du, ezta ere, geroxeago etorriko zen Etxeberri ziburutarraren bertsozko obren ospea, baina haiek baino arinago eraman ohi du egungo zaleak Materrenaren irakurketa.

³² Axularrek urte haietan egin zuen ibilaldi publikoaz eta izan zituen gatazkez, ospez eta hierar-kia politiko eta eklesiastikoekiko harremanez, ikus Salaberri 2005.

³³ Vinsonek jaso bezala (1984, 53), liburua lehen edizioa kaleratu zuen urtean (1617) «le P. Materre était [...] gardien du couvent des Franciscains ou Cordeliers de la Réole (rue des Me-

Argitalpen berria, ezaguna da, «berreturik» kaleratu zen, hau da, lehen-dabiziko edizioaren egitura bateratua bi ataletan bereizia³⁴ eta hirugarren atal batez aberastua³⁵.

Originaltasunak originaltasun, ezin ahatz daiteke jatorrizko lehen partearen bikoizketa berri hura gero eta praktika hedatuagoa gertatzen ari zela inguruko dotrina-liburuetan. Honela mintzo da Resines, esate baterako, Europako dozena bat hizkuntzatarara (frantsesa, gaztelania, italiara, ingelesa, latina, katalana...) itzuliko zen Diego de Ledesmaren *Doctrina Christianaren* eskuizkribuaren (c. 1570) kariatara:

El manuscrito confirma la sospecha [...] en el sentido de que las ediciones posteriores (como ocurre en el caso de lo sucedido a Aste-te) trasplantaron los formularios de las oraciones a un primer apartado titulado 'Texto de la doctrina cristiana' (que sería equivalente a una 'cartilla'), dejando para un segundo momento las explicaciones o 'declaraciones' (Resines 1997, 252; gureak dira letra etzanak).

Oroitarazi beharrik ez dago: Materrerren dotrinaren lehen edizioa galdua, bigarren argitalpen berretua da erkaketetarako geratu zaigun bakarra. Besterik ezean, bada, berori izango da Haranbururen obraren atzean dagoe-netz egiaztatu beharko dena.

Liburuaren egituraren zehaztapenei gagozkiela, zenbatutako lehen orrialdetik 35.era in doan lehen parteak «guiristonac [sic] iaquin behar duen *doctrina declaracino gabe*» (1623, 1; gurea da letra etzana) garatzen du bere baitan. Materrek azaldu bezala, kristauak buruz ikasi behar izaten zituzten otoitzak, aginduak eta formulak jasotzen dira bertan. Labur, tinko eta zehatz emanda.

nuts)». 1623an, bigarren edizioaren argitaratze-urtean, Tolosako komentura igorri zuten.

³⁴ 1623koaren «Iracurcailleari» izeneko hitzaurrean [xxvi or.] dioen bezala, «Dotrina eta Dotrinaren declaratino ez elkarrequin, baiña beregainqui eta bereciqui bi partetan» jarritz.

³⁵ «Eta ceren añhitz baita Euscal herrian iracurtcen daquienic, baiña ez Euscara baicen bertce hitzcuntçaric aditcen, halatan eguin ditut halacoençat Euscaraz debocinozco othoitç eta Oracino batçuc, goicetan, arratsetan, eta bertce añhitz demboratan eta ocasinotan eguin eta erran ahal ditezqueyenac, ceinetçaz eguiten baitut hirugarren parte» (1623, [xxvi-xxvii]).

Aurrekoa baino luzeagoa, bigarren partean «guiristinoac iaquin behar duen *Doctrinaren declaracinoa*» (1623, 36; gurea da letra etzana) dator. Galdera-ihardespenez osatua, gero eta ohikoago bilakatuko ziren katiximen egitura didaktikoa erakusten du.

